Mintzoan kux-kux

IBbY Galtzagorri elkartea

# Irakurketa klubak 2023

(3-5 urteko haurrentzat)

**Ordua:** **17:00**

**Hilabeteko 3. osteguna**

**6 saio guztira**

**Datak:**

Urtarrilak **19**
Otsailak **16**
Martxoak **16**
Apirilak **20**
Maiatzak **18**
Ekainak **15**

Guraso eta haurrak elkarrekin etortzen dira liburutegira. Bertan, Galtzagorriko dinamizatzaile batek zuzendutako irakurketa saioetan parte hartuko dute.

**Helburuak**

- Ipuin, kantu, olerki eta hitz jolasekin heldu eta haurrek ondo pasatzea.
- Irakurketa sustatzea
- Kalitatezko euskal bibliografia ezagutzea
- Guraso/hezitzaile eta haurraren arteko irakurketa giroa sortzea
- Guraso/hezitzaileak ozenki irakurtzen trebatzea
- Haurrek giro lasai batean gozatu dezaten lortzea

**Ezaugarriak**

3-5 urteko haurrentzako saioak
Guraso eta haurrek ekimen batzuk burutzen dituzte elkarrekin, hala nola, irakurketa ozenak, liburuen aurkezpenak, irakurritako liburuei buruzko komentario eta gomendioak, eta hainbat ekimen lasai liburuak ezagutuz gozatzeko eta idatzizko literaturaren curriculum bat pixkanaka osatzen hasteko.

**Izen-ematea Udal Liburutegian**
**urtarrilaren 2tik 18ra**

Hernaniko Udala
Udal Liburutegia

## Irakurketa Klubak

**Irakurketa Klubetako** proposamena gurasoak eta haurrak **elkarrekin** liburutegira etortzea da, Euskal Haur Literatura abiapuntu harturik, horretarako prestatuta dagoen Galtzagorriko dinamizatzaile batek zuzendutako irakurketa saioetan parte hartzeko.

Saio hauen helburua bikoitza da: alde batetik, **gozatzeko une** bat sortzen da, ipuin, kantu, olerki eta hitz jolasekin heldu eta haurrak ondo pasatu dezaten; bestetik, **gurasoen prestakuntza** bilatzen da. Horretarako, euskal haur literaturako baliabideak erakusten dira, eta kontatzeko moduak azaltzen. Azken batean, helduak seme-alabekin literatura modu autonomoan lantzeko gai senti daitezen nahi da.

**Guraso eta haurrek ekimen batzuk burutzen dituzte elkarrekin**, hala nola, irakurketa ozenak, liburuen aurkezpenak, irakurritako liburuei buruzko komentario eta gomendioak, eta hainbat ekimen lasai liburuak ezagutuz gozatzeko eta idatzizko literaturaren bibliografia pixkanaka osatzen hasteko.

Garrantzitsua da, beraz, haurrarekin saiora datorren helduak parte-hartzeko jarrera izatea, ekimen hau ez da umeei soilik zuzendutako denbora pasa. Irakurketa Klub hauen erroa eta helburua umeek gurasoekin irakurketa uneak partekatzea da eta ez haurra bide horretan bakarrik uztea.

**Saioak euskaraz dira** eta beraz, umea lagunduko duen helduak euskararen gaineko ulermen maila gutxieneko bat izan behar du, saioetan parte hartzeko. Euskararen ezagutza baxu xamarra duten helduen kasuan, dinamizatzailea horiei laguntzen saiatuko da, beti ere saioaren berezko erritmoa oztopatu gabe.

*Gozatu elkarrekin!!*

*Galtzagorri elkartea*

## *Club de lectura*

Se invita a padres y madres a que se acerquen junto a sus hijos e hijas a la biblioteca y participen en los Clubs de Lectura, basados en la Literatura Infantil en euskera. Estos clubs los dirige una dinamizadora formada por la Asociación Galtzagorri.

En estas sesiones, se pretende cubrir dos objetivos importantes: por un lado, **crear un tiempo/espacio de placer** donde p/madres y niños/as compartirán poemas, juegos de palabras, cuentos y canciones. Por otro lado, pretendemos también **formar a los/as adultos/as en torno a la literatura infantil en euskera,** para que así se sientan autónomos en esta práctica junto con sus hijos/as.

**En estas sesiones los/as p/madres realizan actividades conjuntas con los/as niños/as:** lecturas de viva voz, presentaciones de libros, comentarios y recomendaciones sobre libros leídos… y otras tantas actividades tranquilas con las que además de gozar, irán documentándose y elaborando una bibliografía de literatura infantil y juvenil de calidad. Por lo que creemos que es importante hacer hincapié en que estas sesiones no van dirigidas exclusivamente alos/as niños/as. Estas sesiones son para que p/madres e hijos/as compartan tiempo y espacio de lectura.
Se ruega, por lo tanto, a los/adultos/as, colaboración y participación activa en las sesiones.

**Las sesiones suelen ser íntegramente en euskara** y por esta razón, se aconseja que el/la acompañante tenga un mínimo nivel de comprensión del euskera. La dinamizadora hará todo lo posible por ayuda a los/as p/madres con más dificultades en esta lengua, siempre que esto no obstaculice el ritmo habitual de la sesión.

¡¡Disfrutad junt@s!!

*Galtzagorri Elkartea*